

6/2017 AKTA
NAFARROAKO UDALERRIEN ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK
IRAILAREN 12an EGINDAKO BILERA

BERTARATUAK:

PRESIDENTEA:

Pablo Azcona Molinet jn., *Lodosako alkatea*

2. PRESIDENTEORDEA:

Jesús M^a Rodríguez Gómez jn., *Ribaforadako alkatea*

BATZORDEKIDEAK:

Javier Albizu Sanz jn., *Artazuko alkatea*
Cruz Moriones Uriz, Ustaizeko burua
Nieves Recalde Zaratigui and., *Etxagueko burua*
María Vicenta Goñi Azanza and., *Gesalazko alkatea*
Ur Algueró Chivite jn., *Aresoko alkatea*
Unai Lako Goñi jn., *Agoizko alkatea*
Mario Fabo Calero jn., *Martzillako alkatea*
Ezequiel Martín Muxika jn., *Atezko alkatea*
Arturo Goldaracena Asa jn., *Tafallako alkatea*
Karmele Marañón Chasco and., *Arbizuko alkatea*
Eneko Larrarte Huguet jn., *Tuterako alkatea*
Alfonso Etxeberria Goñi jn., *Eguesibarko alkatea*
Luis Alfonso de Potestad Tellechea jn., *Aurizko alkatea*
Yolanda González García and., *Vianako alkatea*

Ezin etorria adierazi dute:

Raquel Garbayo Berdonces and., *Cintruénigoko alkatea*
Joseba Asirón Sáez jn., *Iruñeko alkatea*
Ángel Obanos Galar jn., *Artikako burua*

IDAZKARIA:

Berta Enrique Cornago and.

Iruñean, bi mila eta hamazazpiko irailaren hamabian, arratsaldeko bostetan, bigarren deialdian, aldamenean adierazitakoak bildu dira Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen egoitzan (Tutera kalea, 20, 3. solairua, Iruña), Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Pablo Azcona Molinet jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

EGUNEKO GAI ZERRENDA

- 1.- Aurreko bilkuraren akta onestea.
- 2.- Informazioa Vianako Udalak Batzorde Betearazlean duen ordezkaria ordeztari buruz.
- 3.- Informazioa sektoreko batzorde eta kontseiluei buruz.
- 4.- Ordezkariak izendatzea sektoreko batzordeetan.
- 5.- Langileen enplegu baldintzak 2017an
- 6.- Hiri eremuak berreskuratzeko diru-laguntzen 2017ko deialdia.
- 7.- Presidentearen informazioa.
- 8.- Galde-eskeak.

1. PUNTUA. Aurreko bilkuraren akta onestea.

Aurreko bilkuraren aktaren kopia igorrita deialdiarekin batera, aldeztu aurretik irakurri beharrik gabe, presidentek galdetu du Batzorde Betearazleko inork oharrik duen haren inguruan.

Inork ez du oharrik egin.

Bertaratutakoen gehiengoarekin,

ERABAKI DA:

2017ko ekainaren 13an egin bilkuraren akta onestea.

2. PUNTUA.- Informazioa Vianako Udalak Batzorde Betearazlean duen ordezkaria ordeztari buruz.

Presidenteak jakinarazi du José Luis Murgiondo jaunak utzi diola Batzorde Betearazleko kide izateari, Vianako Udaleko alkate izateari uztearekin batera, Yolanda González García andrea hautatu baitute udal horretako alkate. Segituan, hura bilkuran baitago, ongi etorria egin zaio Batzorde Betearazlean.

3. PUNTUA. Informazioa sektoreko batzordeei eta kontseiluei buruz.

Honako informazio hau eman da egindako batzorde eta kontseilu sektorialen gainean:

- **NILSA Administrazio Kontseilua** (2017/06/13). Urteko kontuen auditoretzaren txostenaren eta NILSaren kudeaketaren 2016 txostenaren berri eman zen. Informazioa eman zen lehenbiziko hiruhilekoko arloen kudeaketari buruz eta NILSAko langileen eta sozietate publikoetako agintarien ordainsariei dagokienez izandako jarduketei buruz.
- **EUPFren Lurralde Kontseilua**. (2017/6/27) Informazioa eman zen zenbait gairi buruz, batik bat Aurrekontuen Egonkortasunari buruzko Legearen aplikazioa malgutzeko egindako kudeaketei buruz.
- **Landa Garapenaren Programaren Segimendu Batzordea**. (2017/06/27) Neurriak noraino bete diren aztertu zen. Oraingo, ez da asko bete, plana egokitu zelako, eta orain ari da martxan. Ez da arazorik aurreikusten hura betetzeko orduan.
- **Nafarroako Ingurumen Kontseilua**. (2017/06/29). Kontseiluaren osaera berri nahi dela jakinarazi zen. Lau elkartek parte hartu nahi dute, baina, oraingo, hiru toki baino ez dago. Halaber, kontserbazio bereziko bi eremu onetsi ziren, eta Hondakinei buruzko Foru Legearen tramitazioaren berri eman zen.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea**. (2017/06/29). Aldeko txostena egin zitzaion Osasunaren eta gizarte zerbitzuen eremuetan gizarte kontzertuak arautzen dituen Foru Legearen aurreproiektuari.
- **Toki Prestakuntzarako Batzorde Paritarioa**. (2017/06/30). Etengabeko Prestakuntzaren 2017ko Plangintzarako laguntzen deialdia ebatzi zuen.
- **Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Kontseilua**. (2017/06/30) Landa Larrialdien Programaren berri eman zen.
- **Kontratazio Publikoaren Batzordeak**. (2017/07/3). Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen aurreproiektuaren berri eman zen, baita erosketa arduratsuaren baldintzen berri ere, zeinak prestatu baitira horretarako sortutako talde batean.
- **Nafarroako Euskararen Kontseilua**. (2017/07/4). Nafarroako herrien izendapen elebidunei buruzko dekretuaren berri eman zen. Orobat, aztertu zen Kontseiluan aldaketak egitea kide eta kolektibo gehiagok tokia izan dezaten.
- **Nafarroako Gardentasun Kontseilua**. (2017/08/28). Gardentasun arloko zenbait ebazpen ebatzi ziren eta jakinarazi zen Pili Yoldik, Kontseiluko buruak, kargua utzi duela, arrazoi pertsonalak direla medio.

ERABAKI DA: Jakinaren gainean daudela adieraztea.

4. PUNTUA. Ordezkariek izendatzea sektoreko batzordeetan.

Presidenteak proposatu du Blanca Yolanda González García, Vianako alkatea, Lurrealde Mugetako kide izendatzea, José Luis Murgiondo aurreko alkatearen ordezkari.

Halaber, adierazi du Pedro Lanas ordezkari behar dela Nafarroako Adinekoen Kontseiluan, eta galdetu du inork interesik duen. Nieves Recalde adierazi du prest dagoela horretarako.

Azkenean, adierazi du profil teknikoa duen pertsona bat izendatu behar dela Nafarroako XXXI. Kirol Jokoak Antolatzeko Batzordeko, eta proposatu du aurrekoetan parte hartu duen pertsona izendatzea: Pablo Bolea, Tafallako kirol teknikaria.

ERABAKI DA: Ordezkariek izendapena onestea, ondotik zehazten den moduan:

- **Lurrealde Mugaketako Batzordea.**
 - Blanca Yolanda González García. Vianako alkatea.
- **Nafarroako Adinekoen Kontseilua.**
 - Nieves Recalde Zaratiegui, Etxagueko Kontzejuko burua.
- **Nafarroako XXXI. Kirol Jokoak Antolatzeko Batzordea.**
 - Pablo Bolea. Tafallako Udaleko kirol teknikaria.

5. PUNTUA. Langileen enplegu baldintzak 2017rako.

Presidenteak proposatu du 2017ko enplegu baldintzen proposamena onestea, deialdiarekin batera igorri dena.

Idazkari nagusiak azaldu du ezen, nola oraindik ez den onetsi Nafarroako administrazio publikoetako langileen ordainsarien igoera NUKFko langileei aplikatzea, oraindik ez direla aplikatu 2017ko lanaldia ukitzen dituzten gainerako baldintzak. Lanaldia ez da aldatuko 2016koari dagokionez, eta jaiegunen eta parekatuen zerrenda ere badakar.

Ordainsarien igoerari dagokionez, %1 handitzea proposatu da NUKFko langile guztientzat, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako administrazio publikoetako langileentzat hitzartu zen moduan.

Halaber, proposatu da ordainsariak handitzea Asun Nieto Zabalar, %20ko osagarri baten bidez, ondorioak izanik 2017ko ekainaren 15etik aurrera, egun horretan urtebete egin baitzen lanean hasi zenetik, eta hala zehaztu zen kontratazioa egin zenean.

Azaldu da kontratazioa egin zenean %35eko lanpostuko osagarria esleitu zitzaioela, hiru arlo teknikoek duten bera, ordezkapenerako kontratua baita. Nolanahi ere, esleitzeko gelditu zen %20ko osagarria, zer eginkizun bereganatzen zituen.

ERABAKI DA.

Onestea 2017ko enplegu baldintzak, akta honi erantsita doakion proposamenean agertzen den moduan.

6. PUNTUA. Hiri eremuak berreskuratzeko diru-laguntzen 2017ko deialdia.

Proposatu da hiri eremuak berreskuratzeko diru-laguntzen 2017ko deialdiaren oinarriak onestea.

Presidenteak azaldu du deialdiaren edizio berria dela, eta oroitarazi du ezen, La Caixa fundazioarekin sinatutako hitzarmenari esker, zuzkidura handiagoa dela aurten, 90.000 eurokoa baita.

Aurtengo berritasuna da, bestalde adierazi duenez, gehienez ere diruz laguntzen ahal den zenbatekoa 3.000 eurotik 2.500 eurora pasa dela, eskaera guztiei erantzun ahal izateko.

Eskaerak aurkezteko epea irailaren 15ean hasi zen, eta urriaren 31n bukatuko.

ERABAKI DA:

Hiri eremuak berreskuratzeko laguntzen 2017ko deialdiaren oinarriak onestea, zeinak aktari eransten baitzaizkio.

7. PUNTUA. Presidentearen informazioa.

Presidenteak gai hauei buruzko informazioa eman du:

- **Eranskin bat sinatu dela Etxegabeteen Hitzarmenean, zeina iaz sinatu baitzen Nafarroako Gobernuarekin eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin.** Azaldu da eranskin bat baino ez dela, 2017ra luzatzen duena iaz sinatutako hitzarmena. Eranskin horri jarraituz, harekin bat egiten duten toki entitateek konpromisoa hartzen dute etxegabeteen prozeduretan laguntzeko gizarte zerbitzuen bitartez, eta, kasua bada, etxebizitza berri bat emateko baliabideen bidez.
- **Inbertsio Planaren tramitazioa nola dagoen.** Jakinarazi da ebatzi eta argitaratu direla finantzatzen ahal diren obren behin-behineko ebazpen guztiak. Jakinarazi da txosten batek duela Nafarroako Gobernu batek argitaratutako informazio guztia.
- **Uraren ziklo integralaren Plan Zuzentzailearen tramitazioa.** Jakinarazi da tramitatzen ari dela, nahiz eta hasiera-hasieran dagoen, Nafarroako hirietan erabiltzeko uraren ziklo integralaren Plan Zuzentzailea. Une hauetan, agiriaren zirriborro bat eta hasierako agiri estrategikoa daude.
- **Hondakinei buruzko Foru Legearen Aurreproiektua eta horren fiskalitatea.** Jakinarazi da Hondakinei buruzko Foru Legearen aurreproiektu bat tramitatzen ari dela eta Toki Araubideko Foru Batzordeak horren gaineko txostena egin beharko duela. Orobat, adierazi da Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusiak bilera bat eskatu duela Batzorde Betearazleko kideekin, lege horren punturik garrantzitsuenak aurkezteko. Zehaztu da Batzorde Betearazleko kide guztiei igorriko zaiela aurreproiektuaren testua.
- **Udalek Aurrekontuen Egonkortasunari buruzko Legea indargabetezko egindako mozioak.** Jakinarazi da 81 mozio aurkeztu direla Egonkortasunari buruzko Legea indargabetezko. Halaber, zehaztu da jakin nahi dugula zer jarduketara egiten ari den gai honen inguruan aztertzeke egokia den NUKFk bestelako jarduketarik egitea.

- **Asociación para una muerte digna elkarteko ordezkariekin izandako bilera.** Jakinarazi da bilera bat egin dela elkarte horretako kideekin. Horretan, helarazi digute oso garrantzitsua dela gai horren inguruko kontzientzia hartzea eta udalek gai horretan lan egitea, informazioa zabalduz hitzaldietan zenbait arlori buruz (bizi testamentua, etab.). Alde horretatik, prest daude joateko interesa izan dezaketen udalerrri guztietara.
- **Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua tramitatzen ari den bi proiektu arauemaile. Haur Hezkuntzako zikloa.** Horietako batek ikastetxeek bete beharreko baldintzak ukitzen ditu, eta iragankortasun epearen bukaera ezartzen du, salbu eta bi udalerritako ikastetxeen kasuan, haiekin berariazko hitzarmen bat sinatuko baita. Besteak, berriz, Hezkuntza Departamentuaren eta toki entitateen arteko lankidetzak hitzarmenak izenpetzeko oinarriak ezartzen dituen foru agindua ukitzen du. Azken horretan aldaketak egiten dira, oraingoz, hitzarmenen sinadura eta ordaintzeko epeak ukitzen dituztenak. Halaber, unitate bakarra duten udalak ukitzen dituzten neurriak aztertu dira, ekarpena murrizten baitzaie.

ERABAKI DA: Jakinaren gainean daudela adieraztea.

8. PUNTUA. Galde-eskeak.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, presidente jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko arratsaldeko sei eta erdiak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta presidentearekin sinatu dut.

PRESIDENTEAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Pablo Azcona Molinet jn.

Berta Enrique Cornago and.